



## **GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK**

### **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**

#### **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA**

*2/2021 Foru Dekretu-Araua, martxoaren 23ko, COVID-19arekin zerikusia duten aparteko zerga neurri gehigarriak ezarri eta jarduera ekonomikoa berrabiarazten eta digitalizatzen laguntzeko beste neurri batzuk onesten dituena.*

#### *Akats zuzenketa*

Akatsak antzeman dira 2021eko martxoaren 24ko 55 zenbakiko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako martxoaren 23ko 2/2021 Foru Dekretu-Arauan, COVID-19arekin zerikusia duten aparteko zerga neurri gehigarriak ezarri eta jarduera ekonomikoa berrabiarazten eta digitalizatzen laguntzeko beste neurri batzuk onesten dituenean. Hori dela eta, bidezkoa da haien modu honetan zuzentzea:

1. Zioen azalpeneko 15. paragrafoak:

— *Hau dioen lekuak:*

«Horrela, foru dekretu-arauaren 4. artikuluak zerga onura horiek igotzen ditu TicketBAI betebeharra 2021eko azaroaren 1a baino lehen hasten bada borondatez betetzen. Izan ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietaeen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren hogeita bigarren xedapen gehigarrian jasota dagoen kenkaria, gorago aipatutako 3/2020 Foru Arauaren 1.Bi artikuluaren bidez ezarria, 100eko 60raino igotzen da. Orobak, kenkariaren oinarria kalkulatzeari begira, hogeita bigarren xedapen gehigarri horren 2.b) apartatuko b) letran aurreikusten den muga 1.500 euroraino gehitzen da.»

— *Hau esan behar du:*

«Horrela, foru dekretu-arauaren 4. artikuluak zerga onura horiek igotzen ditu TicketBAI betebeharra 2021eko azaroaren 1a baino lehen hasten bada borondatez betetzen. Izan ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietaeen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren hogeita bigarren xedapen gehigarrian jasota dagoen kenkaria, gorago aipatutako 3/2020 Foru Arauaren 1.Bigarren artikuluaren bidez ezarria, 100eko 60raino igotzen da. Orobak, kenkariaren oinarria kalkulatzeari begira, hogeita bigarren xedapen gehigarri horren 2.b) apartatuan aurreikusten den muga 1.500 euroraino gehitzen da.»

2. Zioen azalpeneko 19. paragrafoan:

— *Hau dioen lekuak:*

«Kontuan izanik azaroaren 6ko 3/2020 Foru Arauak, iruzur fiskala eragoztekо tresna teknologikoak erabili beharra ezartzen duenak, hogeita bigarren xedapen gehigarrian jasotzen duen kenkaria 2020. urtean ere dela aplikagarria, foru dekretu-arau honen lehen xedapen gehigarriak ahalbidetzen du kenkari hori modu gehituan aplikatzea, baldin eta 2020an egindako inbertsio eta gastuek berekin ekarri badute TicketBAI betebeharra 2021eko azaroaren 1a baino lehen betetzea borondatez.»

— *Hau esan behar du:*

«Kontuan izanik azaroaren 6ko 3/2020 Foru Arauak, iruzur fiskala eragoztekо tresna teknologikoak erabili beharra ezartzen duenak, sartutako hogeita bigarren xedapen gehigarrian aurreikusten den kenkaria 2020. urtean ere dela aplikagarria, foru dekretu-arau honen lehen xedapen gehigarriak ahalbidetzen du kenkari hori modu gehituan aplikatzea, baldin eta 2020an egindako inbertsio eta gastuek berekin ekarri badute TicketBAI betebeharra 2021eko azaroaren 1a baino lehen betetzea borondatez.»

3. Bere 4. artikuluaren 1. apartatuko c) letran:

— *Hau dioen lekuan:*

«c) Hogeita bigarren xedapen gehigarriaren 2.b) apartatuko b») letran aipatzen den zenbatekoa 1.500 euro izango da.»

— *Hau esan behar du:*

«c) Hogeita bigarren xedapen gehigarriaren 2.b) apartatuan aipatzen den zenbatekoa 1.500 euro izango da.»

4. Bere 5. artikuluaren c) letran:

— *Hau dioen lekuan:*

«c) 15. artikulu horien 3.b) apartatuko b») letran aipatzen den zenbatekoa 1.500 euro izango da.»

— *Hau esan behar du:*

«c) 15. artikulu horien 3.b) apartatuan aipatzen den zenbatekoa 1.500 euro izango da.»

Donostia, 2021eko martxoaren 26a. (2146)